

## EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIAREN AGURRA

*Gizarteari harrera egitea, Eusko Legebiltzarraren 25. urteurrena dela eta Euskalduna Jauregia, 2005eko irailaren 16a*

Arratsaldeon guztioi, eta mila esker, bihotzez, Legebiltzarraren 25garren urteurrena ospatzeko gure gonbidapena onartzeagatik.

Eskerrak, bereziki, 25 urte hauetan legebiltzarburu izan zaretenoi (Juan José Pujana, Joseba Leizaola, Jesús Egiguren eta Juan María Atutxa), Legebiltzarra den itsasontzi horren lema, itsaso bareetan eta zakarrenetan ere, portu onera eroatearren. Mila esker, guztion izenean, gure Parlamentuaren arduradunak izan zaretelako; eta gaurkoa baino une larriagoetan, gainera. Eskerrik asko legebiltzarkide izan zareten guztioi, egin duzuen lanagatik. Eskerrik asko, baita ere, lehendakari izan zaretenoi. Tinko eutsi diozue gure herriaren ardura izatearen konpromisoari.

Eta, zelan ez, kexak, ekarpen berriak eta kritikak egitera hurbildutako guztiei ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu gaur.

Bideoan ikusi dugun legez, azken 25 urteotan, hainbat gauza aldatu dira. Egun, adibidez, ez da zigarro - kerik ageri Legebiltzarreko osoko bilkuren aretoan; hasierako legegaldi haietan ia itotzen gintuen kea desagertu egin da. Gizarteak bizitza osasuntsuago baten alde egin nahi zuen, ingurugiroa zaintzearen eta garapen iraunkor bat lortzearen aldekoa zen. Gizartearen indar horrek aldatu egin gaitu.

Beste aldaketa nabarmen bat: emakumearen presentzia. Duela 25 urte, emakumeak ehuneko hiru (%3) baino gutxiago ziren Ganberan. Gaur egun, erdiak baino gehiago gara. Duela 25 urte nork pentsatuko zuen emakume bat izango zela Legebiltzarreko presidentea? Eta noren burutan zegoen duela bost hilabete emakume bat, ni, izango nintzela ondorengo presidentea? Nire buruan behintzat, ez.

Hasieran ez nion horri erreparatu, baina nire izendapenean bertan emakume batek holan esan zidan: "Izaskun, zu zara ardura hori daukazu lehengo emakumea". Orduetik, konpromiso bat hartu nuen: "Beti gogoratuko dut emakumeak gizarte honetan egindako lana". Derrigorrezkoa da lan hori aintzat hartu eta eskerrak ematea, eurak izan direlako trukean soldatarik jaso gabe eta gizartearen ezagutzarik gabe lan egin dutenak. Sarritan, gainera, euren etxeetako isiltasunean umeak, nagusiak eta ilobak zaintzen zituzten bitartean. Holan jarraitzen dute askok.

Ez diogu eman baliorik, ez, gehien balio duen lanari, lan zailenari, ordaindu gabeko lanari. Hala ere, horri esker daukagu gaur daukagun gizartea. Ni, eta nire moduan beste andra batzuk, gaur daukagun lekura heldu gara, hain zuzen, emakume askok lan eta lan besterik egin ez dutelako. Publikoki eta denon izenean, eskerrak guztioi.

Tratu txarrak desagertzea nahi badugu, pobrezia emakumearen aurpegia kendu nahi badiogu, berdintasunaren bidean jarraitu behar dugu lanean. Baina beharrezkoa da guztion inplikazioa: gizartearena, instituzioena, eta gizarte eta ekonomi arloko eragileena. Horiek denek lan egin behar dute emakumea berdintasunean sartu dadin lan-mundura.

Emakumeok gizonek eskaintzen duten prestakuntza bera eskaintzen dugu gaur, eta badugu abantaila bat: sentimenduei dagokienez, konplexu barik jokatzeko dugu. Politikari gizatasuna eman ahal diogu, baina horretarako gizonezkoen laguntza ere behar dugu, denok batera lortu behar dugu. Denon onerako izango da hori, gizon eta emakumeen onerako.





Asko dago egiteko oraindik euren jaioterria utzi eta etorkizun oparoago baten bila gurera datozenak integratzeko. Eurei laguntzea izango da gure aurrekoek gure herria garatzeko egin zuten lana eskertzeko modua.

Handitu egin behar dugu gizarte-konpromisoa, eta helburu horrekin lan egitera erakarri behar ditugu gazteak. Eurentzako, gazteentzako, aukerak hobetu, eta berriak ere aurkitu behar ditugu. Gure konfidantza osoa merezi dute, eta euren arazoetara hurbilduta, eurek ere gudan sinistuko dute.

Bitxia da auditorio honek sorrarazten didan sentsazioa. Inoiz hor, zuek eserita zaudeten tokian, izan naiz, eta aktoreak, abeslariak eta eszenatokia urrun iruditzen zitzaizkidan. Gaur berriz, oso bero, hurbil, ikusten zaituztet. Hurbiltasun hori, hemendik aurrera ere, berotasun hori, egunero sentitzea nahiko nuke.

.....

Arratsalde on denei, eta mila esker, bihotz-bihotzez, gure gonbitea onartzeagatik. Elkarrekin ospatzen ari gara Eusko Legebiltzarraren 25. urteurrena, euskal gizartearen indarra eta aniztasuna erakutsiz ospatu ere. Gaur eta hemen mota guztietako elkarteak batu gara: etxe erregionalak, kultur eta kirol elkarteak, erakunde publikoak, legebiltzarrak, diplomaziaren ordezkariak eta, hala nahi izan dutelako, gurekin egotera hurreratu diren herritarrak. Beraz, gaur eta hemen ideia, sentimendu, jakin-nahi, egitasmo, kezka, ilusio, helburu eta eskubidez beteriko pertsonak elkartu gara; herri txiki hau aurre-aurrean ikusi eta kokatu ahal izateko lanean ari garen pertsonak.

Ezin da Legebiltzarra ulertu, hark ordezkatzeko dituen herritarrekin lotuta eta konprometita ez badago. Egia da. Zeuek zarete erakunde honetako protagonistak, eta zeuen kezkek eta arazoek gidatu behar dute gure lana. Hogeita bost urteotan, legebiltzarkideok zuen mailan egoten saiatu gara, guregan ipini duzuen konfiantzari erantzuten ahalegindu gara. Batzuetan ez dugu asmatu, ez dugu jakin egoeraren arabera erantzuna ematen. Baina saiatu egin gara areto honetan senti daitekeen aniztasuna erakusten, saiatu egin gara aniztasun hau defendatzen, bateratzen, ordezkatzeko eta, azken finean, adiskidetzeko.

Bateratzea, adiskidetzea, sentitzea bezalako aditzak gaizki lotzen dira gure arazorik nagusiarekin: ETA. Gaur badakigu indarkeriak ez duela inolako arrazoirik eta gure bizitzatik desagertu behar duela. Zoritzarrez, amaiera hori berandu helduko da ia mila pertsonarentzat. Horietako hiru, Santiago Brouard, Gregorio Ordoñez eta Fernando Buesa, euskal legebiltzarkideak ziren hil zituztenean.

Hemengo eta munduko beste leku batzuetako esperientziak erakutsi bezala, alferrikakoa da indarkeria indarkeriaz borrokatzea, arazoei gauzen errealitatea ukatuz aurre egitea, askatasuna murriztuz, boterearen ahalmena gehiegikeriaz baliatuz edo pertsonen eskubideak urratuz. Horrek ere indarkeria eragiten du. Hori ez da bidea.

Agian horren guztiaren jakitun garelako, esperantzaz begiratzen diogu geroari. Gauza batean, hala ere, sendo jokatu behar dugu, eztabaidaezina delako: guztion bizitzaren eta eskubide eta askatasunen defentsan. Baina, sendotasun horretaz gain, malgutasunez, inteligentziaz eta adeitasunez ere jokatu beharko dugu, bestea ulertzen jakin behar dugu eta, batez ere, bestearen lekuan jartzen, beste aldean. Nire ustez, merezi du bakearen eta adiskidetzearen alde jokatzeko, ausardiaz jokatzeko ere. Denok lagundu behar dugu bide horretan. Bakea guztiona da. Batzen gaituenari heldu behar diogu, gure arteko diatriba politikoak baztertu eta herritar gehienek erakutsitako sen onari, neurri onari eta elkar ulertzen jakite horri lotu. Biktimei zor diegu. Biktimen mina onartu behar dugu, egindako sakrifizioa, bai eta sakrifizio horren aurrean batzuetan urrun eta hotz agertu garelako ere. Euskal Herriko herritar guztiei zor diegu, noranahi doala errudun sentitzeaz minduta eta nekatuta dagoen euskal gizarteari zor diegu.





Hogeita bost urteotan beste gauza bat ikasi dugu: elkarriketak eta aurrera egiteko gogoak merezi dute, haiek bizitza duinago egiten baitute, gizatiarrago, zuzenago. Elkar ulertzeak, elkartasunak, esku zabaltasunak, arazo larriei aurre egiteko beharrak merezi dute. Eta merezi duten horiek gure zerbitzu publikoetan aurkitzen ditugu, bai eta ekimen pribatu askotan eta aurrera joan nahi duen euskal gizartearen apustuan ere. Gogo hori aintzat hartu behar dugu baldin eta gure herrian gertatutakoa ulertu nahi badugu: duela 25 urte, krisia pairatzen ari zela, bide honi lotu gintzaizkion eta, egun, denon artean, herri hura aldatzeko gai izan gara. Arrakastak, hala ere, ez gaitu itsutu behar: gure herrikide batzuk pobreziaaren atalasean bizi dira; beste batzuk, arrazoiak arrazoi, ezin bizi daitezke egoera duin batean. Horregatik, egunerokoak, bizitzaren arazoek, bazterketaren aurkako borrokak izan behar dute gure kezka nagusia.

Horregatik, esan beharko dugu gaizki ari garela gure jokabideak ulertzen ez dituzuenean, gaizki ari garela gure jarduna, gure arteko borrokak edo gure hizkera ilun iruditzen zaizkizuenean, hitz batean, guregandik espero duzuen betetzen ez dugunean. Gaizki ari gara berez gaitzak diren arazoak konpondu beharrean, are gaitzago egiten ditugula ematen duenean. Horrelakoetan, alferrikakoa da gure lana. Horregatik, gure ondoan behar zaituztegu, gurekin, ideiak ematen, parte hartzen, guztion etxea den erakunde honen etorkizuna kontrolatzen. Gogorarazi behar diguzue, egunero gogorarazi ere, zein den gure betebeharra: bat ez etortze sakonak elkarrekin bizitzeko arau bihurtu behar ditugu, zailtasunak aukera eta borrokak elkargune.

Errazagoa izango da, zalantzarik gabe, Eusko Legebiltzarra espazio irekia bihurtzen badugu, azken urteotan herria aurrera eraman duen gizartearekin komunikatzen bagara, euskal gizartearen bultzadarekin eta sen onarekin bat egiten badugu. Jakin behar dugu herriaren luze-zabalak eta teknologia berriek ematen dizkiguten aukerak baliatzen. Horretarako, bada, benetako plaza publiko bat bihurtu nahi dugu Legebiltzarra. Lan hau posible egiteko, behar-beharrezkoa zaigu Administrazio parlamentarioaren lan zuhurra, isila. Horregatik, haiek ere gurekin eduki nahi izan ditugu gaur eta hemen. Horregatik, euren lana eskertu nahi dut ekitaldi honetan. Pertsona horien lanik gabe ez genuke oroimenik izango. Pertsona horien jardunik gabe, ezin har genezake aurrera begira hartu nahi dudana konpromisoa. Guztion etxea izan nahi dugu. Benetan. Gure ateak irekita daude. Lagun iezaguzue helburu hori lortzen, zuen ekarpenak, zuen normaltasuna eta zuen sen ona guregana hurbilduz. Horrela bakarrik lortuko dugu Legebiltzarra kristalezko kubo irekia egitea.

Esker mila.

